

**Sampras galtzaile eta Berasategi irabazle**

**DONOSTIA**

Pete Sampras estatubatuarra Roland Garros torneotik kanpo geratu da, lehenengo kanporaketan Gilbert Schaller austriarraren aurka 7-6 (7-3), 4-6, 6-7 (4-7), 6-2 eta 6-4 galdu ostean. Astelehenean jokatu beharrekoa zen neurketa, baina hirugarren setean bertan behera geratu zen euriaren eraginez. Ordurako, Schallerrek irabaziaz zuen set bat, eta Sampras ezinean ari zen. Atzo, gauzak modu berean joan ziren. Pilotoean nagusi zen austriarra. Samprasek 24 ace egin zituen, baina Schallerren sendotasunaren aurrean hori ez zen nahikoa izan. Hau da, hain zuzen ere, Samprasek Grand Slam bateko lehen kanporaketan galtzen duen lehen aldia.

Txapelketa utzi behar izan zuen beste zerrendaburu bat Richard Krajicek holandarra (15) izan zen; Andrew Ilierekin 3-6, 6-3, 6-4, 2-6, 6-4 galdu ostean. Jardunaldiko beste partidu interesgarri batean, Wayne Ferreira hegoafrikarrak (8) bost set behar izan zituen Mats Wilander suediarra gainditzeko. Thomas Muster (5), Jim Courier (13) eta Eugeni Kafelnikov (9) aurrera egin zuten.

Alberto Berasategik berri, bost set behar izan zituen Marcelo Rios txiletarrari irabazteko, 6-4, 7-5, 6-7 (3-6), 3-6 eta 6-1 izan zen partiduko emaitza.

Sailkapen faseko bigarren txandako lau partidu jokatu ziren ezuste handirik gabe. Ingalaterrak eta Australiak garaipen eskasak lortu zituzten atzo eta ez dute oraindik maila handirik erakutsi. Arrosakoak final-laurdenetan izango dira, Hego

Afrika, Samoa, Eskozia eta Frantziarekin batera, (Zeelanda Berria-Gales partiduaren berri izan aurretik). Sailkatzeko aukerarik gabe geratu dira, Tonga, Bolikosta, Japonia, Italia, Argentina eta Errumania

# Australia, jokoan sartu gabe

Ingalaterrak justu eta larri irabazi zion Italiari ondo jokatu gabe

**27 AUSTRALIA**

Daly-Kearns-Hartill, Waugh-Eales, Ofahengau-Gavin-Tabua, Slattery-Lynagh, Campese-Horan-Little-Roff, Burke. Aldaketak: McKenzie Hartillen ordez (56. min.), Fodey Kearnsen ordez (70. min.) eta Greagan Slatteryren ordez (82. min.)

**11 KANADA**

Evans-Svoboda-Snow, James-Rowlands, Hutchinson-Charron-MacKinnon, Graf-Rees, Loughheed-Gray-C. Stewart-Stanley, S. Stewart. Ennis Rowlandsen ordez (70. min.)

**Puntuak:** 3-0 Lynaghen zigor kolpea (5. min.). 8-0 Tabuaren entseia (8. min.). 10-0 Lynaghen transformaketa. 15-0 Roffen entseia (10. min.). 17-0 Lynaghen transformaketa. 17-3. Reesen zigor kolpea (14. min.). 17-6 Reesen z. k. (30. min.). 20-6 Lynaghen z. k. (35. min.). 25-6 Lynaghen entseia (56. min.). 27-6 Lynaghen transformaketa. 27-11 Charronen entseia (77. min.).



Slattery baloia irekitzen Lynaghi.

**KOLDO AIDUNTZIN / DONOSTIA**

Eguraldi hotzak eta boladako haize bortitzak hartu zuen A multzoko bigarren txandari zegokion Australia-Kanada neurketa. Kanadak, Errumaniari 34-2 irabazi ondoren, final-laurdenetarako txartela irabazteko ametsa zuen, Australiak Hego Afrikaren aurka galdu egin baitzuen Munduko Rugby Txapelketaren estreinuko partiduan.

Australiak ez zuen erakutsi txapeldun batek egin behar duen jokoa. Neurketa nahastua izan zen oro har. Lehen zatian erabaki zuen garaipena. Hastepeneko hamar minutuetan, Wallabiesek bakarrik zeudela ziruditen, amen batean hiru entseiu egin baitziztuzten.

Hortik aurrera kanadarrek gehixeago estutu zuten defentsa oinarritzkoa. Oinarritzkoa eta eraginkorra zen bere jokoa. Jokalari sendoen aurrean, zailtasunak izan zituen txapeldunak bere jokoa egiteko Lynaghen zigor kolpearekin, eta 20-6 iritsi ziren aurretik atsedenaldira.

Bigarren zatian jokaldi onak egin zituzten iparramerikarrek baina abiadura eskasarekin jokatu. Ez zuten burua makurtu, hala ere, eta saria entseia izan zen.

Hortaz, final-laurdenetarako bigarren txartela larunbatean erabakiko da, Australia-Errumania eta Kanada-Hego Afrika partiduak jokatu baitira. Sailkapenean Hego Afrika da lehena 6 punturekin, Australiak eta Kanadak 4 dituzte eta Errumaniak 2.

**27 INGALATERRA**

**20 ITALIA**

**Joko onik gabe**

Ingalaterrak espero den jokoa egin gabe lortu du final-laurdenetarako txartela. Argentinari 24-18 irabazi zion nagusitasun handirik gabe eta Rob Andrewen hankari esker. Atzo, berriz, Samoaren aurka 42-18 galdu zuen Italiaren aurka, zazpi puntu eskasen aldeaz irabazi zuen.

Lehen zatia 16-10eko markagailuarekin amaitu zen eta nahi baino zailtasun handiagoarekin ari zen jokatzin. Underwood anaiek entseiu bana egin zuten eta, nola ez, Rob Andrew jokozabaltzaileak gauzatu zituen garaipeneko bost zigor kolpe eta entseiu transformazio bat. Italiak bi entseiu egin zituen, Vaccari eta Cuttitak. Hagetarako jaurtiketetan beti bezain zorrotz aritu zen Dominguez hiru zigor kolpe eta transformazio bat gauzatu.

Datorren igandean lehen postua izango dute jokoan Ingalaterrak eta Samoak.

**50 IRLANDA**

**28 JAPONIA**

**Lasaitasunik gabe**

A multzoko partidu honetan, orain lau urte gertatutakoaren antzekoa izan genuen atzo. Irlandak 23 puntuko aldeaz irabazi zion kalitate handirik erakutsi ez duen Japoniari. Aurreko Mundualean, 16 puntuko aldeaz nagusitu ziren irlandarrak. Lehen zatian, hala ere, lasaitasunik gabe aritu zen Irlanda. Atsedenerako bidea hartu zutenean 19-14 ziren aurretik hirustakoak.

Antzeko jokoa egin zuten biek, bizia eta kalitatezko jokoa egin gabe. Zazpi entseiu egin zituen Irlandak, eta horietako bi zigor entseiuak izan ziren. Gainerako puntuak ostikoz lortu zituen Burkek. Entseiuak egiten ez ziren atzean geratu japoniarrak, lau egin baitziztuzten. Hurrengo bi partiduak, lehen faseko azkenak, igandean jokatu dira. Zeelanda Berriak Japoniaren aurka jokatu du eta Irlandak Galesen aurka.

**41 ESKOZIA**

**5 TONGA**

**Hastingsek begia non, baloia han**

Astearte gauean jokatu zen D multzoko partidu hau. Gavin Hastings eskoziarrak errekorrekin amaitu nahi du selekzioarekin izan duen partehartzea. Bolikostari 44 puntu egin baitzizkion (guk, okertuta, 65 jarri bagenuen ere), eta Tongari 31. Izugarritzko zorrotasuna erakusten ari da hagetarako jaurtiketetan, zortzi zigor kolpe eta transformaketa bat gauzatu zituen asteartean. Gainera, entseiu bat ere egin zuen.

Lehiari dagokionez, ohi bezalako indarrarekin eta agresibitatearekin jokatu zuen Tongak. Askotan, ordea, gaizki bideratutako energia erabili zuen. Pazifikoko joko horrelakoa da, plakaje bortitzekin eta abiadura handiarekin. Joko horrek, ordea, arrisku bat dakar, zigor kolpe gehiegi egitea. Lehen zatian 6 egin zituzten eta Hastingsek denak gauzatu zituen. Bigarren zatian jaitsi egin zuten defentsako presioa Tongakoek eta gora egiten zuten bakoitzean zigor kolpeak adierazten zizkien epaileak.



**SAN MAMES FUTBOL ZELAIA**

Igandean, ekainak 4, 19:30ean  
Liga Txapelketa, 1. Maila

**ATHLETIC CLUB-REAL OVIEDO**

**TXARTEL SALMENTA**

**TXARTELDEGIAK:** SAN MAMES STADIUMean.

Ostiralean, 17:30etik 20:00etara  
Larunbatean, 10:30etik 13:30era  
Igandean, 10:30etik 13:30era eta 18:00etatik aurrera.

**Sarrerak telefonoz eros ditzakezu eta BBV Athletekin edo beste edozein BBK txartelekin ordaindu. Etxera errekargurik gabe bidaliko dizkizugu. Gainera 10 sarrera zozketatuko ditugu.**

**Deitu 906 35 11 25 telefonora**

LANCIA  BILASA rekin dabil *Athletic*

Autonomia, 53 Tf. 427 58 20 BILBO Alameda Rekalde, 48 Tf. 410 12 55